



ARAUDIA 2011

7 ko FUTBOLA

Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak, Euskadiko Futbol Federazioarekin lankidetzan, **EUSKADIKO III ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK ERRENDIMENDUARI EKITEKO IBILBIDEAN** antolatuko ditu. Gasteizko Adurtza-Adurtzabal futbol zelaietan, 2011ko maiatzaren 29 eta ekainaren 4ean.

1. JOKO SISTEMA

Hiru bateko sistemaren bidez, bi jardunalditan izango da.

Kategoria: alebin mutilak, 1999 urtean jaiotak.

2. TALDEEN OSAERA-

Lurrealde bakoitzeko hiru talde parte hartuko dute. Lehenengoko biak lurrealdeetan izandako txapelketaren lehenengo eta bigarrenengo izango dira. Hirugarren taldea hirugarren sailkatutakoa edo gainontzeko lau talde ezberdinez osatutako nahasketa bat izan daiteke.

Jokalari guztiak eskolarteko lizentzia aurkeztu beharko dute txapelketan parte hartzeko.

Ikasturtean zehar talde berean aritutako partaideak izango dira parte hartzeko aukera izango duten jokalaria.

Taldeak gehienez 18 jokalariz osatuta izango dira, eta horietaz gain ordezkari bat eta entrenatzailea ere izango dituzte.

Gehienez 14 eta gutxienez 9 jokalariz izango dituzte taldeek, aktan jasotakoak.



Partida bakoitzean, aktan izena emandako partaide guztiak zati bat gutxienez jokatu beharko dute. Behin aipatutako aldaketak egin eta gero, aldaketak askeak izango dira.

Taldeek jantzien kolorearen berri emango diote antolaketari izena ematerakoan, bi talde ez daitezen bat etorri partida egunean.

3. JOKOAREN IRAUPENA ETA ALDAKETAK.

Partidak 30 minututako iraupena izango dute. 15 minututako bi zatitan bananduta eta 2 minututako atsedenarekin.

4. TXARTEL HORIA ETA TXARTEL GORRIA.

Jokalariaren jokabide ez zuzena edo ez duina falta arintzat jotzen badu epaileak, txartel horia erakutsiko dio eta zelaatik botako du denbora baterako (bi minuturako). Behin bi minutuak igaro ondoren, jokalaria hori zelaira itzuli daiteke epaileak baimena ematen dionean.

Epaileak txartel gorria erakutsiko dio eta zelaatik botako du jokalaria honako kasu hauetan: bere ustez, jokalaria jokaera bortitza duenean; joko zakar larriaren errudun denean; hizkera zikina edo iraingarria erabiltzen duenean; edo ohartarazpen bat jaso duen edo aldi baterako kanporatua izan den jokalaria jokaera ezegokia izaten jarraitzen duenean.

5. JOKOZ KANPO.

Jokalari bat jokoz kanpoko posizioan egongo da, aurkako taldearen 13 metroko gune barruan egonda ateko marratik baloia baino gertuago badago, jokalaria eta aipaturiko marraren artean aurkako taldeko bi jokalaria edo gehiago egon ezean.

6. FALTAK NOLA GAUZATU. ZIGOR JAURTIKETA.

13 metroko marratik kanpo adierazitako faltak jaurtiketa libre batekin zigortuko dira. Falta horiek zuzenean jaurtiko dira egindako leku beretik, zuzenean puntu bat lortzeko aukera emanez taldeari. Aurkako jokalariek bertatik 6 metroko distantzia minimora egon beharko dute.

Jokalariak bere taldearen 13 metroko gunen barruan falta eginez gero, epaileak penaltia adieraziko du eta ekintza horren larritasunaren arabera zigortuko du jokalaria, futbol hamaika jokoko arauak aplikatuz.

7. ARAUZKO DENBORA IGAROTZEAN.

Penalti-puntutik hiru jaurtiketako txanda bat egingo du talde bakoitzak, penaltia botatzeko bi taldeetako jokalariek txandakatu. Hiru jaurtiketak egin ostean berdinketa badago, penaltiak jaurtitzeko jarraituko dute talde batek hutsegia eta besteak sartu arte.

Hurrengo jardunaldiko eta txapelketako postuak zehazteko irizpide hauek jarraituko dira:

- 1.1.- Egindako eta jasotako gol kopuru handiaren diferentziaz, txapelketako partida guztiak kontuan izanda.
- 1.2.- Sartutako gol kopuruaren arabera, txapelketako partida guztiak kontuan izanda.
- 1.3.- Jokotutako bi taldeen arteko emaitzen arabera.
- 1.4.- Berdindutako taldeen arteko penalti jaurtiketen emaitzaren arabera.
- 1.5.- penaltietako gol ezberdintasunagatik.
- 1.6.- Jaurtitako penalti kopuru gutxienagatik.
- 1.7.- Zozketaren bidez.

8. BALOIA



4 zenbakikoa izango da baloia, honako ezaugarri hauek dituen. Berotzeko baloiak taldeak ekarri beharko dituzte.

9. ZELAIA

Belar artifizialezkoa izango da zelaia.

10. JOKO ARAU OSAGARRIAK.

Aipaturiko arauak aurreikusten ez dituzten egoeretan futbol 11ko arauak aplikatu.

11. KIROL SARIAK.

Lehenengo hiru sailkatuentzako garaikurra.

12. EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharririk sortu ezkeronahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

13. AZKEN OHARRA.

Araudi honen barruan aurreikusirik ez dauden egoerentarako honako hauek izango dira kontutan:

- a) 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b) Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretua.
- d) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren 2011ko urtarrilaren 24ko Agindua, 2011ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXX. edizioaren deialdia egiteko dena.



EUSKADIKO XXX. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK
XXX JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



- e) Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendariak, 2011ko urtarrilaren 31ko Ebazpena, 2011eko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXX. edizioaren epaile bakarria izendatzen dena.
- f) Futboleko Euskadiko Federazioaren araudiak dioena.